

Durango

Durangarrak bikain arte martzialen munduko txapelketan

Anboto 2014-04-29 09:11 [KIROLAK](#) [DURANGO](#)

Wado Kan taldetik munduko txapelketara joan diren zazpi kirolariek hamar domina irabazi dituzte.



Irabazleak euren dominekin | [Argazki originala](#)

Durangoko Wado Kan eskolako zazpi kirolarik estilo guztietako arte martzialen munduko txapelketan [PARTE](#) hartu dute apirilean eta guztira 10 domina irabazi dituzte: urrezko lau eta zilarrezko sei.

Portugalgo Vagos herrian jokaturako munduko txapelketan Wado Kan eskolako zazpi kirolarik parte hartu zuten eta denek irabazi zituzten dominak. Marka handia da kontuan hartuz gero munduko txapelketak 70 herrialdetako 4.000 parte hartzaile izan zituela, 14 modalitatetan banatuta.

Pedro Romanek urrezko domina bi irabazi zituen bere modalitateetan; Natalia Vilarchaok urrezko eta zilarrezko domina bana kolkoratu zituen; Yaiza Pineda izan zen urrezko domina irabazi zuen hirugarren durangarra. Iratxe Iriondo zilarrezko domina birekin itzuli zen etxera eta Josu Legorburu, Beñat Nazabal eta Mikel Ibarzabal zilarrezko banarekin.

Esperientzia aberasgarria

Wado Kan eskolarentzat emaitza “gogoangarriak izan dira kontuan hartuta kirolari denak amateurak direla” eskolako kideek adierazi dutenez. Baina lehiatz haratago, munduko txapelketa “oso aberasgarria” izan da durangoko kirolarientzat: “Mundu osoko arte martziletako kirolariak batzen dira eta horregatik besteengandik ikasteko aukera bikaina eskaintzen dute”.

DOMINAK ETA MODALITATEAK

Iratxe iriondo:

- Zilarra Formak Arma Gogorrak modalitatean (18-29 urte artekoak) Gerriko marroi eta beltzak.
- Zilarra Antzeztutako Defentsa Pertsonal modalitatean.

Pedro Roman:

- Urrea Antzeztutako Defentsa Pertsonala modalitatean.
- Urrea Light-Kick modalitatean. 30 urtetik gorakoak. Pisutsuak.

Josu Legorburu:

- Zilarra Light-Kick modalitatean (16-17 urte artekoak) 74 kiloz azpikoak.

Beñat Nazabal:

- Zilarra Light-Kick modalitatean (16-17 urte artekoak). 66 kiloz azpikoak.

Mikel Ibarzabal:

- Zilarra Light-Kick modalitatean (18-29 urte artekoak)

Yaiza Pineda:

- Urrea Formak Arma Gogorrak (13-15 urte) Gerriko marroi eta beltzak.

Natalia Vilarchao:

- Zilarra Formak Esku Hutsez. 12 urte artekoak.
- Urrea Formak Arma Gogorrak modalitatea. 12 urte artekoak..